



# MARTIN JAUREGIALTZO

Gaurko Mendiko kaliak ezta kolehenguaren kolore-rik be. Gaur Errekalde auzorako pasua dan kale hau garai batian herrixaren akaberia zan; handik aurrera errekoa, banastagiñen pozuak, soruak, Mediko presarako bidia... Mendiko kaleko famelixa

gehixenetan egozen banastagiñak eta etxe-aurrekaldia izaten zan askotan lanerako eta tertulixarako lekuri aproposena. Giro horretan jaixo eta bizi izandako Martiñen eskutik doiatzue gaurko barri-keltalditxua.

## - Banastagintzarako esku ona dakotzula entzun dogu...

Bihako, hainbeste urtetan horretan jardun da gero... Mendiko kalia, ni jaixo eta bizi naizen lekuan, etxe gehixenetan ziran banastagiñak, eta, geurian be, aittak eta amak hortik ataraten ebein bizi-modua, labrantza apur bat eta bi behitxorekin batera. Guk geuk be, eskolatik etortzen giñanian, geure tariatxua eukitten geben: aittak banastak hasitta eukitten zittuan eta guk ixo egin bihar izaten gittuan, 4 edo 6 banasta eguerdixan eta gero illunkaran beste hainbeste.

## - Noiz arte ibilli ziñan eskolan?

Hamabi urtera arte. Lehenengo Santamañako eskolan Don Juan Moreno-ekin, baiña harekin hasarratu egin nintzan: beste batek kulpia eta neri palo emun eta lagunuen aurrian lotsatu egin nindualako eta nik neuk be jenixua neukan eta jospe egin neben etxera. Aitta taillerrian ebillen lekura ailegau nintzan: *Ze pasaitten xak Martin?* esan nontan, eta nik: *Hau eta hau egin dost maixuak;* orduan, itxi egurrok bertan beheara, labiari atakia zerrau eta joan giñan bixok eskutik hartuta Santamañara Morenorengeana; berak onartu eben nik eneukala kulparik

eta hala arreglau giñan orduan, baiña, hurrengo urtian agustiñuetan hasi nintzan. Han 31-32 kurtzora arte, orduantxe akabo nere eskolak, 12 urte kunplidu barri nittuala.

## - Handik aurrera banastagintzaia...

Bai, orduantxe hasi eta harik eta 38 urte bete arte, goizeko zazpirak laurden gutxiagotan Santamañako Sierbetan 7retako mezetarako jotzen ebein kanpaia-ekin jaiki, amak egindako kafe ederra hartu eta lanera; beratzittan armozua, aittak jeneralian saldía eta nik talua eta esnia; bi azaleko talua, amak esaten eben moduan, eta atzera taillerrera harik eta hamabixak aldera amak bazkarixa gertu eguela dihar egin arte; orduko janarixa babia eta urdaixa. Bazkalostian lokamusa egitteko ohitturia eukan gure aittak eta nik be orduan ikasi neben pittin baten uhera faten. Ordu bixak inguruan berriz be lanera, bostak aldera meriendau eta gero gabeko beratzixak arte lanian.

## - Zeintzuk ibiltzen ziñain?

Aitta, ama eta neu, eta, tarteka, bigarren anaia be bai, baiña honek Altunarian be egitten eben eta han barruan taillerrian ibillita, gurago izaten eben ganauakin urtetia pittin bat oriauaz;

horregatik jeneralian hirurok egitten geben: aittak, amak eta nik.

## - Etxian bertan?

Bai, hantxe eguen obradoretxo baten geukan guk tresna guztiak. Uda partian, eta, giro ona eguenian, baita neguan be, ate-aurrekaldera urtetan geben. Hantxe egitten geben lana gure kaleko banastagin gehixenok: handik pasaitten zan jentierekin kontuak kontaitten, izugarritzko tertulixak egitten gittuan; fabriketako jentia be, lanetik urtetan ebenian kontu kontari etortzen zan; bertsolari antzeko bat be bageukan tartian, eta, animaitten zanian, egundukuak botaten zittuan. Periodiku bat be beti eukitten geben hartuta eta bateko deportia

**G**ure aittak esaten eben bere garaixan Oñatin 100 bat famelixa banastagintzatik bizi zala, eta orduko famelixak hazixak izaten ziran, 5-6 seme-alaba, ez urrixak gaurkuak modukuak.



Martin Jauregialtzo eta Jexus Letamendi 1993ko Herri Egunion banastagintzan.

zala eta besteko beste gauza batzuk zirala tertulixia egitten geben; horixe geukan gauza ederra. Orduan txarritxo bat etxe danetan hazten ebein eta oilluak be danian egozen eta honeik be kalera urtetan ebein euren ibillalditxua egittera.

## - Noizko kontuak dira horreik?

Orain dala 35 bat urtekuak, nik 1958xan itxi notzan banastagintzaiari eta ordurarte kalia egitten zan lana.

## - Zelako banastak egitten zittuain?

Itxura eta tamaiña askotakuak egoten ziran: batzuk, haundi samarrak, fabriketarako espezialak izaten ziran; hazi-banastak, barriz, soruetan ereitten





zan hazixa eruateko ebalten ziran eta imifia bat edo biko kabidia eukain; beste batzueiri *kontratista* esaten gosten, obretarako izaten ziralako edo.

#### - Nori saltzen zotzain banastak?

Herriko banastagin gehixenok almazenista edo maioristairi saltzen gosten, Makalena eta Hilarion Umerezeri batez be. Baiña, guk, zuzenian denda edo fabrika batzutarako be lan egin izan dogu. Guri esaten oskun *aste honetan komeni xatak klase hauxe egittia* segun berak ze eskabide eukan eta zapatuan egitten geben entrega. Behin, aitta gaixorik eguela eta, neu fan nintzan 24 banastako bost sorta Hilarioneri eruatera eta, bertan lau litroko garrafue bat ardau ordaindu eta gero, 50 pezeta ekarri neben etxera, eta handik materialak pagau bihar. Konparaziño bat egitteko, urte hareittan litro bat oli-xok 100 pezeta balixo eben, bi asteko lana.

#### -Ze egur erabilten zebein?

Gaztaifia, oso edade-gia zan eta. Lehenengo ipurdi-xa egin, estrukturia esaten dana, horretarako zimitz nasai-xaguak bihar izaten ziran; gero, ixo egiten zan eta horretarako ziharzimitzak ebalten ziran, pittin bat luzetxuaguak eta mehetxuaguak dira. Gero, arua egitteko, eskarpi. Akaberia emuten, jeneralian andrak eta umiak ibiltten ziran: umiak arua ipiñittakuan geraketan ziran azpiko zuluak zerraiten, eta emakumiak albueta ixo barik geratutakuak akabaitten. Baiña gurian amak ziharzimitzak be ondo lan-keetan zittuan kutxilluarekin.

#### - Nundik zuzenketan zebein materiala?

Batzueiri baserriarrak ekarten otzain gertu etxera, baiña gure aittak eta tantora hartzen ebein baso-saila eta pre-paraittia eta ekartia geure kontura izaten zan. Zemendittik San Josiak inguruetara, harik eta orrixa urteten hasi arte, egitten zan lana basuan. Astian egun beteko edo biko ekiñaldixak egitten gittuan eta basua hola konponduaz faten giñan. 10.000, 12.000 kilo, milla arrua edo hola ekarri bihar izaten zan urterako materiala. Pagau, barriz, hiru-lau plazotan, eta goguan dakot gure aitta eta ama zelako larru ibiltten ziran horreik beteteko udabarrixan, martzoko ferixan, eta halakuetan.

**O***rduan be krisis-hotsak entzuten gittuan orain-txe letxe. Negu aldian banasta gutxiago bihar izaten zan eta krisisa etorten zan: izugarriz-ko banasta pillak ego-ten ziran kamaran; asko egin eta urteixera-rik ez.*



Mendiko kaleko banastagiñak orain dala 40 bat urte: Ildefonso Jauregialtzo, Karlos Egaña (*Belienekua*), Joxe Jauregialtzo bere alaba Anjelitarekin, Joxe Migel Jauregialtzo, Martin Jauregialtzo eta Lorentxo Biain (*Txapelena*).

#### - Basotik ekarri eta berihela sar-tzen zebein egurra pozuan?

Hiru-lau hillabetian sikaketan itxi bihar zan pozura sartu aurretik; berdetan ezin leike sartu, egoskor geldiketan da eta. Pozura sartzeko sasoirik egogixe-na Aste Santu ingurua izaten zan.

#### - Eta nun ziran pozu horreik?

Orain Errekalde auzua hasten dan inguruan eguen mordotxo bat; geuria orain kamiñuak tapaitten dauen erreka eskiñan zan, *Txapelena*, *Beliene* eta *Larrastegikuen* aldamenian. Goratxuago, Santamaña eta San Anton kaleko banastagiñak eukain eurenak.

#### - Lehen aittatu dozu 38 urterekin fabrikan hasi ziñala...

Bai, ordura arte lan eta lan baiña xemeikorik ikusi bez; ezkonketako asmua be baneukan eta zeozer egin bihar neben, eta halaxe atia jo fabrika baten lan eske

eta emun nostainian ezkondu nintzan. Beste batzuk be, banastagintzaia itxitta, orduantxe hasi ziran fabriketan lanian. Izan be, ha bizibide latza eta irabazi urri-kua zan, eta fabrikan berriz, kooperati-betan batez be, diru pittin batekin kolo-kaittia baeguen sasoi haretan. Halaxe, poliki- poliki, gaztiak fabrikako lan ero-suari helduta banastagiñak gutxiketan fan ziran Oñatin.

#### - Fabrikan hasi ziñanian aldaketa fuertia izan zan?

Bai, ni bilddurrez fan nintzan, gazte-gaztia be enintzan eta; baiña poli-tto ohittu nintzan, eta, diferentzia izuga-rrixa izan zan neretzako beste batzuekin parejo gelditu nintzan diru asuntuan eta; esan leike orduantxe hasi nintzala neure bizimodua egitten, *Garaiñian* hasi nintzanian.

#### - Baiña zuk urte gehixe-nak ekonomatuan egin zi-ttuan?

Bai, 7 bat urte fabrikan eta gero *Garaiñeko* ekonomatorako batenbat bihar zala eta, ni eruan nindduain eta han egin nittuan beste 20 urte, orain dala 8 jubilau nintzanera arte.

#### - Eta orain ze bizimodu egitten dozu?

Orain be badakot nere lantxuak. Goizetan etxeko lanak egin eta gero jubilaue-tara faten naiz egunero bazkalordurarte. Arratsaldian, barriz, lehen esan doten moduan, garai baten ikasittako siestia neretzako derrigorrezkua da, eta gero, bueltatxoren bat be egitten dot andriarekin, jubilaue-tan batzarra eztakotenian. Eta tarteka, otzaratxoren bat edo beste be egitten dot.

#### - Orduan etxatzu ofiziua ahaztu?

Ez, 30 bat urtian horretan ibilli barik be, orain dala gutxi, preparautako materiala zuzenketako okasiñua euki nebenian, eneben pentsaitten modutuko nintzanik, baiña lehenengo otzaria egindakuan neu be txokauta gelditu nintzan zelako politta urten nontan ikusitta. Esae-ria dan moduan, txikittan ondo ikasittakua ezta sekula ahazketan eta neri behintzat horixe pasau xat eta noizian behin oso gustora egitten dot halako otzaratxo bat edo beste. Gaztiari be erakusteko gertu nago ni, baiña ez hortik bizimodua atara-teko, hori ezinezkua dalako gaur egun, baiña bai geure ohitturak erakutsi alde.